

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arantxa Lasa Apalategi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Ordizian jaio zen; Ataungoak zituen gurasoak. Bost senide ziren. Bost urte zituenean ama hil zitzaion, eta 12rekin aita. Orduan, Donostiako Antigua auzora joan zen bizitzera, Matia kalera, osaba-izebengana. Ordizian ibili zen eskolan, lehenengo karmelitetan eta gero eskola publikoetan. Jostundegi batean jardun zuen lanean, Donostiako erdigunean. Familia abertzalekoa, euskararen eta aberriaren alde borrokatu du beti, erresistentzian zein isilpeko ikastolei laguntzen. Gerra osteko lehenengo inude eta artzainetan parte hartu zuen. Joakin Sistiaga antiquatarrarekin ezkondu zen, eta bost seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-073

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-09
- **Iraupena:** 122 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

DON-076

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-16
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Agirre, Eli - Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Trukaketa

- **Erref:** DON-076/002
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:00:07. **Bukatu:** 00:01:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Isilpeko ikastolak. Elbira Zipitriaren metologia erakusten du. Andre Joxeparen trukaketa.

2. Isilpeko ikastoletako liburuak

- **Erref:** DON-076/006
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:05:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Isilpeko ikastoletako materiala. Liburuak: Martin Txilibitu, Umearen laguna, Xabierto eta Txuri ta Gorri ta Kikiriki.</p>

Transkripzioa

- Bueno, ba ikusten dezu, jaiotza irudikatzeko're, ze polita iten zuen. Era guztira umeak oso-oso ondo prestatuak ateratzen zian, era guztira, e. Bai, gero ya bakoitzak pues segitu du, bere bizimodua, ezta? Baiño oiñarri bezela, bai, ikastola hontan behintzat oso-oso ondo prestatuak ateratzen zian. Eta beno, hamen degu "Martin Txilibitu", hau're oso ezaguna zan, hemen "Umearen laguna", bueno, gero hau oso ezaguna da, "Xabierto". Eta gero, ba, hemen badaude, hau da, hau're asko erabiltzen zuen, eta oso polita zan, ipuiak kontatzen ditu, ipuiak kontatzen ditu, "Txuri ta Gorri ta Kikiriki", ba oso-oso liburu polita zan hau, umeak erabiltzen zutena, oso-oso polita. Oso polita.

- Koloretsua e?

- Bai, bai, oso liburu argiak eta politak zian, umeentzat. Eta gero ba hori...

- Eta hori hasieratik zeon ala azken urtetakua da?

- Ez det uste nik, oso azkeneko urtekuak diala, ez.

- Ez?

- Azkenean, azken-azkenean, erdera're iten zuen ezta, eta beste liburu batzuekin, baiño nik uste hau beti erabili zuela, e, bai. Hau nere mutil gazteena da, gaztenana. Bai, Sistiagatar Jokin jartzen du, beraz, gaztena.

3. Alabaren koadernoak

- **Erref:** DON-076/008
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:05:24. **Bukatu:** 00:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Alabaren koadernoak erakusten du, ikastolakoa. Xabierto liburua. Trukaketa.</p>

4. 'Mamutxak' liburua

- **Erref:** DON-076/010
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Mamutxak liburua erakusten du, Iparraldetik ekarria. Natura. Xabierto liburua.</p>

5. 'Leoi-kumea' liburua

- **Erref:** DON-076/012
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:14:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Ikastoletako materiala. Leoi-kumea liburua. Argazkiekin, zuri-beltzean. Elbira Zipitriaren taldeko andereñoak. Ikastolak zabaltzen hasi ziren. Metodologia. Kantuak eta otoitzak.</p>

6. Andre Mariaren marrazkia

- **Erref:** DON-076/013
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:14:07. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Ikastoletako koadernoak. Andre-Mariaren marrazkia. Jaiotza. Eguberriak. 1973.

7. Koadernoaren hasieran, otoitza

- **Erref:** DON-076/016
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Isilpeko ikastolak. 1969ko koaderno bat erakusten du, otoitz batekin hasiera gisa.

8. "Etxe poxpola" abestia I

- **Erref:** DON-076/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Hain urrun etxe poxpola" abestia kantatzen zuten umetatik isilpeko ikastoletan. Jolaserako.</p>

Transkripzioa

- Ba, zan, "Hain urrun etxe poxpola", hori kantatzen zuen txiki-txiki-txikitatik, lehenengoetatik. "Hain urrun etxe poxpola..."

Hain urrun etxe poxpola
hola, hola.
Tximinitik gora, kea dariola,
hola, hola.

Nola segitzen zun? A!

Gaintxoan arbola, zelai erdian.
Erreka poxpola etxe atarian.

Ta... ahaztu egiten zaizkit, baiña hori oso polita zan. Ez dakit hori nola dan, [...] bukatzen. Baiña gero beste estrofan esaten zun... Ahaztu egiten zaizkit ya! Danak ahaztuta dauzkat. "Erreka poxpola etxe atarian". Bukatzen zun "hola, hola". Eta ez dakit gehio. Ez, ez, ahaztu in zait. Ze pena!

- Eta hori noiz kantatzen zan?

- Jolasaldian eta.

- Jolasean?

- Bai, jolasaldian. Hauek ez zuten jolasaldirik egiten kalera aterata o patiora, zegatik nola habitazio batean ematen zen eskola, ba, han egiten zan jolasaldia, ba, egingo zuten deskantsutxo bat. Eta orduan gero kantatu. Eta gero garaia garaiekoa ere bai, zeatik ni jun izandu naiz umean bila eskola eta Pazko garaia bazan, ba, kantatzen zuten bukatzean ya Pazko garaiko abesti bat. Eta beste urte-aro bat bazan, beti egokitua. Beti egokituak izaten zian kantak.

9. "Etxe poxpola" abestia II

- **Erref:** DON-076/022

- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:22:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>"Hain urrun etxe poxpola" kanta. Isilpeko ikastoletan kantatzen zen.</p>

Transkripzioa

Hain urrun etxe poxpola

hola, hola.

Tximinitik gora, kea dariola,

hola, hola.

Gaintxoan arbola, zelai erdian.

Erreka poxpola etxe atarian.

Dana txiki-txikia, hola.

Bestea ez dakit, beste estrofa, nola zan, baiña [jartzen] zun: "eltzea sutondoan...".

10. Hilarriak marrazten zituzten

- **Erref:** DON-076/026
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastoletako koadernoak. Norbait hiltzean hilarria marrazten zuten. Otoitza. Ikastolako gelako haurren izenak. Miren Terese Aleman zen andereñoa.

11. Kukuaren abestia

- **Erref:** DON-076/029
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:26:14. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>Kukuak habia non egiten duen erakusten duen abestia. "Ixil-ixilik argitutzen da" kanta. Isilpeko ikastoletako ume koadernoak.</p>

Transkripzioa

- A! Hau beste bat zan oso polita, beida:

Aita nun egiten du kukuak kabia?
Txantxangorri kabian lapurtuz tokia.
Tralalala, lapurtuz tokia.

Hori zan erakusteko umeai ba benetazkoa nola dan, e, nun iten zun kabia.
Bai, hemen danak egongo dia, e. Hemen, hau´re... hau´re zan kanta bat:

Ixil-ixilik argitutzen da
ixili-ixilik mundua.
Ez da munduan ezer argitzen
ez bada hontzan ohiua.

Baiño ez zituzten bukatzen. Hasierak. Gero, ba, beraiek...

- Hor ikusten da txikiak zirala, ez? Kuaderno hori in zuna...
- Bai, bai, hau... oso txikiak. Hau izango zan Karmelena, "lehenengoa"
jartzen du, asike... Bai, hemen [hesi] artean dauka jarrita "lehenengoa".
Ba, lehenengo bloka berea. "Zuk lagundu eta asko ikasi dugu, eta
eskerrikasko, zeruko Aita. Karmele".

12. "Jaiki-jaiki" kantua

- **Erref:** DON-076/032
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:28:52. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>"Jaiki-jaiki, euzkotarrak" kantua. Isilpeko ikastoletakoak. "Etxean badet ama" kantua.</p>

Transkripzioa

- "Jaiki, jaiki, euzkotarrak, argia da zabala, argia da zabala". Badakizu hori, abesti hori?

Sortaldetik ageri da
argi goxo biguiña.
Bere aurrean bildurtuta
iges dijoa illuna.
Iges dijoa illuna.

- Polita, e?
- Oso polita da, bai. Badaude kantak eta... Ikusten? Ba, batzuk badakizkit;
beste batzuk ya...
- Hainbeste izango ziran, ezta, kantak?
- Klaro.
- Egoera bakoitzerako bat.
- Hau oso polita zan:

Etxean badet ama

Jainkoak emana,
zeruan beste ama,
Andre Mari ona.
Bien eskutik noa
zeruko aitangana.
Beren eskutik noa
zeruko aitangana.

Hori ere oso polita zan. Eta hori etxean abesten genun gauean.
- Hori zer, ohera joan aurretik?
- Bai.

13. Sabino Arana gogoan

- **Erref:** DON-076/034
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:32:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Koadernoa erakusten jarraitzen du. Sabino Aranaren oroitzapenez egindako hilarria. EAJ. Isilpeko ikastolak. Jesusen bihotza.

Transkripzioa

- A! Hau da... Hau izango zan Sabino Aran, Sabino Aranaren oroitzapenez edo egiña, bai. Zeatik gure andereño Elvira nola hain... Bakizu, garai hartan danok giñan PNVko guztiak. Dana harea juten giñanak danak. Gero bakoitzak, o bakoitzak esan nahi nuke, beraiek e bai irakasleak, ikasleak, ba bere bidea hartu due, ezta? Baiño... Baiñan danak dute oiñarri ona e? Bai. Danak dute oiñarri on bat, bai. "Izan zaitez beti Yosu maitea gure bihotzaren jaun ta jabea". Hau seguraski izango zan pues Jesusen bihotzaren egunean edo eginda.
- Bai, seguru baietz
- Eta gero hemen habek dia pottokak eta...
- Bai, ikusten da gero eta haundiyaguak diala ez?
- Bai, bai.

14. Izpiritu Santuaren eguneko kantua

- **Erref:** DON-076/037
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:33:10. **Bukatu:** 00:34:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Izpiritu Santuaren eguneko kantua. Eskola eta etxea uztartuta zeuden.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com